

altza

«Osteguna»ren plan berria

Oinarrizko bizitza kalitatea nahi du
Auzo Elkartek Larratxorentzat

Osteguna Auzo Elkarteko partaide eta arduradunak Larratxoko etxe guztietara hurbilduko dira heinendik egunerri-tara bitartean, beren helburu eta nahiak auzotarrei adierazteko asmoz eta era berean, auzotarren kezak ezagutzeko.

Batzordeak osatzen

«Osteguna»k zuzendaritza batzordea finkatua du jadanik, honela. Maria Luisa Garciak lehendakaritza lanak egiten dituen bitartean, Alejandro Etxenikek lehendakariordetza hartu du bere gain. Idazkaritza lanak Jose Ramon Zapirainek egingo ditu Juan Luis Apalategi diruzainak lagundurik. Lan batzorde bereziak ere antolatu dituzte, martxan daude jadanik trafiko eta hirigintza batzordeak Teodoro Sotoren gidaritzapean, kirol batzordea Jose Luis Lara buru delarik eta kultura batzordea.

Trafikoa arazo nagusia

Osteguna Auzo Elkarte bezala berria da eta momentuz lana auzoaren behar beharreko puntutan finkatu du. Trafikoa da puntu nagusia, auzoa kotxez gainezka baitago eta trafiko arazoak handiak dira. Larratxoko biztanleek ibiltari bezala ez dute oinezko izateko lekurik, baina aparkatzeko lekurik ere ez dago. Nahiz eta «Osteguna»k Donostiako Udalarekin behin bai-



Larratxo Pasealekuko bi dorreetan 150 aparkaleku hutsik daude. Larratxo Pasealekuko bi dorreen azpikaldean 150 aparkaleku hutsik daude saldu eta alokatu ezinik eta hor ikusten du Auzo Elkartek konponbidea, instituzioekin akordio batetara iristen badira behintzat.

no gehiagotan hitzegin duen, gaia oraindik geldirik dago. Konponbide errazik ez duen arren, Larratxo Pasealekuko bi dorreen azpikaldean 150 aparkaleku hutsik daude saldu eta alokatu ezinik eta hor ikusten du Auzo Elkartek konponbidea, instituzioekin akordio batetara iristen badira behintzat.

Lau Haizeta parkeak, Garberan egingo den Eroski hipermerkatuak, berdeguneek, haurrentzako jolasteko tokiak eta orokorrean auzotarrentzat bizitzeko kalitate hobea lortzeak arduratzen du «Osteguna».

Bazkidetzeko deialdia

«Osteguna»ren iritziz.

instituzio gehienek ez dute Larratxo ezagutzen eta ez dute ezagutu nahi. Beraz, oinarrizko bizitza kalitatea bilatzeko elkarlana beharrezkoa ikusten dute eta Auzo Elkartearen bazkide egiteko deialdia egiten dute.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391)
ARGAZKIA: ROXALI FERN